



BARREN

TOKIKOM

Artista, lehen begi-kolpean

Andres Egidazu



ERRONKA BERRIEI AURRE EGINEZ



elgoibarko
herri eskola

Aurre-matrikulazio epea: urtarrilaren 27tik - otsailaren 7ra.

Elorri eskola ezagutzera urtarrilaren 29an: 15:00etan (gaztelaniaz), 17:00etan (euskaraz). Deitu 943 740 879 zenbakira edo idatzi zuzendaritza@elgoibarhe.net helbidera.



magnet erakarri
Ehazketa lantza



Gu ere animatu gara AURKEZLE-SAREAN izena ematera!

Animatu zu ere! Gehiago eta hobeto egingo dugu asko bagara!

Aurkezle-sarean izena emateko:  elgoibar@euskaraldia.eus  943 741 626  643 499 169

Aurkezle-sarean izena ematen duzuenok beharrezkoa den laguntza eta materiala izango duzue, eta jasoko duzue formazioa, aurkezpenak egiten hasi aurretik.



JON PELI URIGUEN, 51 urte



URRATEGI ALZIBAR, 57 urte

◆ Zergatik eman duzu izena aurkezle-sarean?

Euskaraldia, ariketa kolektibo gisa, oso ekimen interesgarria iruditu zitzaidan hasieratik. Lazkoa ikusita, eta euskararen egoera zein den jakinda, sinistuta nago pauso gehiago eman behar direla, eta arlo desberdinetan, gainera. Pauso horiek emateko, garrantzitsua izango da denon ekarpena; euskara erdigunera ekartzeko bizitzaren alor guztietan: kirolean, sare sozialetan, arlo sozioekonomikoan, eremu publikoan... Horregatik eman dut izena; nik eman dezakedan apurra gehitzeko.

◆ Pentsatu al duzu zein erakunderi aurkeztuko diozun Euskaraldiaren bigarren edizioa?

Pentsatuta daukat, baina sareko beste kideek egingo duten aukeraketaren arabera molda dezaket. Azken urteetan euskarak enpresetan duen presentziaren inguruko lan taldeetan parte hartzea tokatu zait, eta arlo hori landu nahiko nuke.

◆ Nola bizi izan zenuen Euskaraldiaren lehen edizioa?

Egia esanda, euskaraz bizi naiz egunerokoan, eta ez nuen aldaketa handiegirik somatu nire jardunean. Egia da, hala ere, egoera batzuetan, lehen hitza euskaraz ematea kontzienteki egitera eraman ninduela ariketak eta jendearen ahalegina eta ilusioa ere nabaritu nituela. Alde horretatik, oso ariketa interesgarria iruditu zitzaidan.

◆ Zergatik eman duzu izena aurkezle-sarean?

Euskararen alde zerbait egin nahi dudalako, eta horrelakoak antolatzen direnean parte hartzea ezinbestekoa delako. Euskarak gure artean duen presentziarekin kezkatuta nago, eta nik zerbait egin badezaket, egiteko prest nagoelako.

◆ Pentsatu al duzu zein erakunderi aurkeztuko diozun Euskaraldiaren bigarren edizioa?

Bai, pentsatu dut. Beraiei oraindik ez diet jakinarazi, baina Goki Erreformak eraikuntza enpresari aurkezteko asmoa daukat.

◆ Nola bizi izan zenuen lehen edizioa?

Ilusio handiarekin, eta somatu nuen, ni bezala, beste asko ere ilusioz beterik zeudela. *Ahobizi* rola hartu bannuen ere, nire zalantzak izan nituen, pentsatzen nuelako nik neuk ia beti euskaraz egiten dudanez, *Belarriprest* rola hartuz gero euskaraz gehiago egingo zidatela, baina *Ahobizi* izan nintzen.

Bestalde sorpresa izan zen niretzat, positiboki esan behar dut, gutxien espero nuen jendeak ahalegin handia egin zuelako euskaraz jarduteko edo, behintzat, entzuteko. Euskaraz jarduteko ohitura dugunoi euskaraz entzutera animatu ziren asko, eta ulertzen ahalegintzen ziren, gainera.





Ingurumaria

patologizatuz ingurumaria ezabatzen dugu. Horrela, erasotzaileak sortzen ditugu euren gizatasuna ezabatuz, etiketa bat gailenduz.

Eskoletako patioez ari naiz. Zenbait haur identifikatzen ditugu arazo sortzaile gisa, haur guztiek, baita geurek ere, euren argilunak dituztela onartu beharrean. Horregaitik mantentzen dira dinamika kaltegarriak, honek hari egin dion zer-bait gisa ulertzen dugulako eta ez inguruan zeuden guztiek elikaturiko talde

*“Izaki sozialak
garen heinean,
ingurua eta ingurukoekin
ditugun sentipenek
asko baldintzatzen
gaituzte”*

dinamika gisa. Nola komunikatzen gara herritarrok, espazio publikoen nolako erabilera egiten dugu, zein mota-tako herritarrak daude erabakiak hartzen eta herriko bizitza antolatzen; kodigo guzti horien inguruan hausnartzen badugu bakarrik ulertuko dugu zer gertatzen den eskolako patioan.

Sentipen edo emozioek badute zentzu historiko bat eta baita ingurumari-rako egokitzean ere; norberak duen nortasunaren arabera joerak ditu (zentzu historikoa), eta beti inguruarekiko interakzioan sortzen dira (onartua / taldearentzat baliozkoa izatea). Beraz, arlo individual bat eta arlo soz-ial bat dute; biak aztertzean osatu ahalko dugu gertatzen denaren inguru-ko hipotesi zuzenago bat eta nola la-gundu pentsatu.

Globalitatea errealiterik zehatze-nean ere islatzen den modura, soilik geure ingurua eraldatuz ahalko dugu putzada txiki bat *tsunami* bihurtu.

Azkenaldian pentsatzen nabil zer nolako pentsamendu motak elikatzen ditugun eta horrek zer eragin duen norbere identitate eta gaitasunetan. Izaki sozialak garen heinean, ingurua eta ingurukoekin ditugun sentipenek asko baldintzatzen gaituzte; onartua sentitzeak balio digu geure burua baliozko onartzeko eta horrek errazten digu gainerako funtzioak garatzea. Baina ohikoa izaten ari da egoerez beharrean indibiduoek hitz egiten entzutea jendea; norbanakoa



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskararen Topagunea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuittzak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBAR
UROLA
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:



MENDIARO
1981



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► 2020KO JUAN MUGERTZA KROSAREN ESKER ONA

Lerro hauen bidez, eta Elgoibarko Nazioarteko Juan Mugertza Krosaren LXXVII. edizioa jokatu berritan, Mintxeta A.T. batzordeak eskerrak eman nahi dizkie, nola edo hala, euren laguntza eskaini duten erakunde eta enpresa guztiei. Izan ere, haien eskuzabaltasunari esker, berebiziko arrakasta izan zuten 2020ko urtarrilaren 12an egin zen krosak.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko herriari; alde batetik, ekitaldi hori antolatzerako orduan emandako laguntzagatik, eta bestetik, gure herrira krolean parte hartzeko asmotan etorri ziren atleta guztiei egingo dako harrera bero eta adeitsuagatik. Leku guztietatik zoriondu gaituzte eta Elgoibar osoarekin partekatu nahi dugu hori.

Horregatik guztiagatik, Elgoibarko herriaren izena, aste betez, mundu osoko kirolaren ikuspuntuan egon da, hedabideak Elgoibarren zer gertatzen ari zen adi egon baitira.

Eskerrik asko baita ere komunikabideei, ikusleei eta bereziki laguntzen egon diren hamarnaka boluntarioei; handiak zarete!

Hortaz, lanean jarraitzea gustatuko litzaiguke. Horretarako, lanerako prest dauden pertsonak ere behar ditugu, datorren urteko krosa aurtengoa bezain ona edo hobea izan dadin. Badakigu gero eta zailago dela eta gu ere nekatzen hasiak gaude, eta beraz urtetik urtera joango gara begira ea helburuak bete ditzakegun. Horrela bada, Mintxetan ikusiko dugu elkar 2021. urteko urtarrilean krosa ospatzeko. Mila esker.

Mintxeta Atletismo Taldea

► MILA ESKER DANOI

Tarte honek ematen digun aukera aprobeztatu nahi dugu eskerrak eman eta gure ekitaldien berri emateko.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu Elgoibartik eta kanpotik gabon zahar ferian guregana hurbildu zineten guztioi. Benetan goiz oso ederra pasa genuen. Baita ere, nola ez, hileru guregana kantura hurbiltzen zareten kantuzale guztioi. Bihotz

bihotzez, eskerrik asko.

Jakinarazi nahi dizuegu, urtarrileko azken zapatuan ez garela kantura itengo. Otsailean, berriz, San Lazaro egotzako lagunekin dugu hitzordua. Bertan abestu ostean, bazkaria antolatu dugu Kimetz elkartearen. Aurrerago esango dizuegu nola apuntatu bertara joateko.

Eta ezin ahaztu orain dela gutxi joan zitzaigun Koldo gure laguna. Oso zailak izan dira hilabete hauek bera gabe. Zauden lekuan zaudela, jakin ezazu, eguneroko, hileru, gure gogoan egoten zarela. Mila esker, Koldo, egin zenuen guztiagatik, zure lanari segida emango diogu, ahal dugun bitartean.

Kale Kantarien Lan Taldea



IV. URTEURRENA

Garbiñe del Hoyo Murua

2016ko urtarrilaren 28an hil zen, 48 urte zituela. Haren oroimenez IV. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urtarrilaren 25ean, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren Eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldeztu aurretik eskerrak.

**Zeruko izarren artean aurkitu duzu tokia,
lurrean utzi dituzun izarrei emateko argia.
Zure indarrak emango digu benetako bizia,
egunsentiarekin batera jarraitzeko bidia.**

Zure familia



Mankomunitateak 14 milioi euro inguruko aurrekontua onartu du 2020rako

Debarrena Eskualdeko Mankomunitateak 13.946.863 euroko aurrekontua onartu du aho batez 2020rako. Mankomunitatetik jakinarazi dutenez, ahalegin eta partida ekonomiko handiena hiri-hondakinen gaikako bilketara eta kudeaketara bideratu dute: 9.092.662 euro, aurrekontuaren % 65 baino gehiago. Atal horretan, nabarmentzekoa da hondakinen altako kudeaketagatik Mankomunitateak GHKri ordaindu beharreko 3.241.493 euroko zenbatekoa. Honako hauek dira birziklatze-alorreko beste partida garrantzitsu batzuk: mankomunitateak 1.200.000 euro inbertituko ditu ibilgailu eta makinak berritzeko, 234.353 euro papera eta kartoiaren gaikako bilketarako, eta 190.004 euro ontzien bilketarako.



Bilketaren ostean, kale-garbigetaren atala da nagusi, eta Mankomunitateak 4.4041.523 euro jarriko ditu horretarako. Atal horretan mantenduko dira ekitaldi honetan makinetan sartutako hobekuntzak, baita edukiontzien ondoan utzitako zabor-poltsak eta hondakinak biltzeko zerbitzua ere. Iosu Arraiz presidentek esan du bereziki ahaleginduko direla birziklatzea bultzatzen, kale-garbigeta hobetzen, eta Mankomunitatea gardentasunez eta hurbiltasunez kudeatzen. Informazioa herritarrengana hurbiltzeko ahalegin horretan, Arraizek adierazi du Mankomunitateak 80 euro inbertituko dituela herritar eta urte bakoitzeko bilketan eta birziklatzean, 2019an baino % 10 gehiago.

Diru-sarreraren atalari dagokionez, udalek ordaintzen dituzten kuotak dira sarrera nagusia. Kuota horiek hondakin-kudeaketako eta kale-garbigetako zerbitzuek eragiten duten kostua ordaintzeko dira. Kuotetan 13.134.185,92 euro jasotzen ditu guztira. Sarrera horiek Ecoembes enpresari fakturatutako eta paper-salmentari dagozkion diru-kopuruekin osatzen dira, hau da, 732.048 euro, eta baita Eibaroko Udalak egindako 80.630 euroko ekarpenarekin ere, udalerrri horretan kartelak kendu eta herriko fatxadak garbitzeagatik.

Telefono zenbaki berria du odol emaileen elkarteak

Elgoibarko Odol emaileen telefono zenbaki berria hau da: 623 328 408. Odol ateratzeak egiten diren egunetan txanda hartu daiteke bertara deituta edo whatsapp idatzita. Nahi duenak lokaletan bertan ere hartu dezake txanda.

Jubilatuaren egoitzako batzar orokorra

Jubilatuaren Biltokiak bazkideen batzar orokorra egingo du eguaztenean, hilaren 29an. Besteak beste 2019an egindako jarduerak eta urteko memoria ekonomikoa izango dituzte aztergai. Era berean, 2020rako dituzten egitasmoen berri emango dute. Batzarra 17:30ean hasiko da.

Sendi Anaitasunaren urteko batzarra

Mendaroko Sendi Anaitasunak urteko batzarra egingo du domekan, Azpilgoetako elizan. Mezaren aurretik egingo dute, 11:45ean. Arduradunek jakinarazi dute batzarrera joaten ez diren bazkideek 10 euroko isuna izango dutela. Bestalde, elkartearen izena eman nahi dutenek batzarrera bertara agertu edo zuzendaritza batzordeko kideekin jarri beharko dute harremanetan.

Porrotx, Ikastolan

Ikastolako DBH2. mailako talde batek proiektu berezi bat landu du Komunikazio Tailerrean, eta horren barruan, Porrotx pailazoak Ikastolan izan zen joan zen astean. Haur Hezkuntzako umeekin jardun zuen lehenik solasean, eta ondoren, DBH2. mailako ikasleekin. Txikiek zein nagusiek, gauza asko ikasi zituzten pailazoarekin.



Plastikoek eragiten duten kutsaduraz ohartarazi du Herri Eskolako ikasle talde batek



Kutsadurarekin kezkatuta, pentsatzetik ekiterako pausoa eman dute Herri Eskolako LH. 5. mailako ikasleek. Ozeano Barean pilatutako plastikoekin sortu den uhartearen harira, proiektu bat landu dute eskolan eta kalera irten dira gero zaborra batzera. Olasto industrialdean aritu ziren joan zen astean garbiketa lanetan, eta plastikoez gain, beste hainbat zabor ere batu zuten. Udalaren laguntza izan dute egitasmo honetan: proiektua eta Elgoibarko bazterrak garbitzeko ideia Hirigintza Saileko arduradun losu Arraizi azaldu zioten, eta Udalak garbiketa lanak egiteko materiala eman zien ikasleei: zinta txuri-gorriak, eskularruak eta plastikoa, bai eta zaborra jasotzeko poltsak ere.

Hobariak eskatzeko epea urtarrilaren 31n amaituko da

Elgoibarko Elkarrekin Podemosek jakinarazi du urtarrilaren 31n amaituko dela hainbat zergen gaineko hobariak eskatzeko epea. Bestek beste, ondasun higiezin eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergetan familia ugariak edota minusbaliaren bat dutenek dituzten hobariak aipatu dituzte. Horrez gain, gutxi kutsatzen duten ibilgailuek ere hobariak dituztela gogorarazi dute. Elgoibarko Udaleko Herritarren Arretarako Zerbitzuan egin behar dira eskaerak.

Udalaren 2020. urterako zerga egutegia publiko dago Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) abenduaren 20az geroztik. Hala ere, zenbait hobariri buruzko informaziorik ez dela ageri ohartarazi du Elkarrekin Podemosek eta salatu du Udalak ez duela horien berri eman.

Adikzioei buruzko plana egiteko inkesta bat jarri du sarean Udalak

Elgoibarko Udala adikzioei buruzko plana berritzen ari da, eta horretarako galdeketa bat prestatu du herritarrek erantzun dezaten. Lortzen diren emaitzak baliagarriak izango zaizkie plan berria zehaztu eta aurrera begira egin beharreko ekintza espezifikoak zehazteko. Galdetegi "erraza" dela aurreratu dute, eta parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrek. Herritarren kezka nagusiak jaso nahi dituzte arduradunek. Udalaren webgunean bete daiteke galdetegia (www.elgoibar.eus).

Donostiako danborradan hartu dute parte Atabal danborradako kideek

Donostiako Aiete auzoko 14 Gurutze Danborrada taldeak gonbidatuta, Elgoibarko Atabal taldeko 43 kidek Donostiako danborradan hartu zuten parte astelehenean. Madrilgo musika banda batek lagunduta jardun zuten Donostiako kaleetan barrika eta danborrak jotzen. Partaideek esan dute hunkigarria izan zela eta primeran pasatu zutela.





Sortzeko jaioa

Ezagunak izango dituzue batzuek Andres Egidazuk (Elgoibar, 1930) sortutako San Bartolome parrokiaren maketa, bai eta Santumotzen eta Urruzunoko San Antonio Paduakoaren irudiak ere, duela lau urte, parrokian lehen meza eman zuteneko 300. urtemugan, ikusgai jarri zituelako Elgoibarko arte erlijiosoaren erakusketan. Egidazuren obraren ale batzuk baino ez dira, baina, horiek. Artista bera ere ezagutuko duzue beste zenbaitzuk, azokaz azoka ere ibili izan delako egurra nola lantzen duen erakusten eta artisauagintzari balioa ematen, jakin badakielako ezagutzen ez dena nekez baloratzen dela. Eibarren egin dugu hitzordua harekin, eta alaba Mirenekin agertu da estudioa. Bideoa ikusteko: barren.eus.

- AINARA ARGOTIA -

Gure aita Alfa ibili da lanean 20 urte zituenetik, muntaketan, eta 63 urterekin erretiroa hartu zuenean, gaztetu egin zen. Are, oso-osoan gustuko zuen horretara jarri zenean, egunak motz egiten hasi zitzaizkion”, dio Mirenek aitaz, Andres Egidazu artista artisauaz. Estudioa hartu aurreko urteetan etxeko ganbaran gogoratzen du aita lanean, eta hunkitu ere egin da zintzela eta mailua eskuan hartu eta tornuan jarritako ohol zatiari danba-danbaka hasi denean berriro aita. “Aspaldi ez nuen entzuten zarata hori, baina gure etxeko soinu-banda izan da. Denboraren nozioa ere galtzen zuen gure aitak ganbaran bere gauzetan ari zela”. Irailean 90 urte beteko ditu Andresek, eta gaur oraindik, egunero egiten du etxetik Legarren duen estudio txikira arteko bidea. “Egunero zabaltzen ditut nik leiho hauek. Hementxe distraitzez naiz ni”, dio.

Azken urteotako dozenaka lan ditu estudioan konpas-konpas jarrita, baita tailer txikia ere leiho ondoan, erremintaz betea. Eguzki-begian dago estudioa, eta atsedenerako eta lanerako ez ezik, gimnasia egiteko ere baliatzen du lokala Andresek azkeneko urteotan. “Bizkarreko ebakuntza egin zidaten eta hementxe egiten dut gimnasia ere”. Bigarren etxea du estudioa. Ataritik, Corte Inglesa ikus daiteke parez pare, 43 urtez lantoki izan zuen Alfa enpresaren orubean eraikitako saltoki handia, eta urrutirago, Alfa Arte enpresa, zeinetik berriro lanean hasteko tentatu zuten, erretiroa hartu berritan. “Eskulturagintzan aritzen dira Alfa Arten, eta lanerako deitu ninduten, baina ezetz esan nien”, gogoratu du.

Estudioan dena du erakusteko Andresek. Eta dena da ikuste-koa: makila landuak, askotariko ama birjina eta egurrean egindako dozenaka eskultura -tartean estudioan dituen gainerako

lanen ondoan jite modernoagokoa dirudien gorputzik gabeko kristo santuarena-, Elgoibarko San Bartolome parrokiaren maketa, Arrateko santutegiarena, Eibarko San Andres parrokiarena, Idortobeko Santumotz ermitarena nahiz Eibarko Azitaingoarena, Arantzazuko basilikarena, 36ko gerran tropa frankistek Kalamua gainean eraitsi zuten sozialisten Tomas Meabe aterpearena, Donostiako Urgull mendiko Jesusen Bihotzarena [azkeneko egindako maketa du] ... eta tartean, jakina, baita sortzen ikusi zuen etxearen maketa ere, Urkiola-Handi baserriarena. Kanpoko zein barruko detailerik txikiak ere zaindu ditu haietan.

Urkiola Handin jaio zen 1930ean, Idortorbe bailaran. Bost neba-arrebetan hirugarrena da Andres, gaur hiru bizi badira ere, eta ume-umetakoa du arterako zaletasuna. "Akordatzen naiz etxe atzean lur ona geneukala, buztina, eta harekin figurak sortzen ibiltzen nintzela. 8-9 bat urte izango nituen". Etxean zaletasun bera zuen besterik izan ote zen galdetuta, osaba Roman Ezenarro aipatu du: "Margotzen-eta ibiltzen zen, baina erreferentzia handirik ez daukat". Edonola ere, artea izan du berak ere adierazpide nagusi, osabak bezala. Eta haren antzera, berak ere nahi baino eskola gutxiago zapaldu zuen ikasteko "sasoi hobea" izan zuenean. Eta horixe du pena, penarik izatekotan. "Baserrian beti izaten genuen zeri heldua. 13 bat urte nituela aroztegian hasi nintzen lanean, Elgoibarren. Lau hilabete egiten nituen han, neguan, gero, martxotik aurrera, baserrian pilatzen zitzaigulako lana, kanpora bila irten beharrik gabe. Neguko lau hilabeteetan, Santa Klarako Maristen eskolara joaten nintzen aroztegitik irten-dakoan, ordubeterako. Dominoan joketzen ikasi nuen eskolan. Maistrak aspertuta zeuden itxuraz eskolak emateaz, eta gu beste edozertan baino gusturago dominoan!. Handik irten eta marrazketa ikastera joaten nintzen gero beste ordubetez, Bernardo Ezenarorengana [Osaba Romanen aita zena]. Gauza hutsa. Ez nuen dimentsioak eta proportzioak kalkulatzeko ikasi". Ibilian-ibilian ikasi du teknika.

"Beti izan naiz gauzei erreparatzekoa, eta baserrikoa izanda, naturako formak eta koloreak ondo ezagutzen ditut. Lehen begi-kolpean atera ditut horko irudi gehienak, aurrez marraztu barik". Egurrean tailatutako segalari, harri-jasotzaile, itzain, eta laietan ari diren baserritarrez ari da. Berdin ondoko egur landuan ageri diren ahari, idi, galeper, eper, erbi eta abarrez ere. Etxe-abereak nahiz basabereak oso ohikoak dira bere lanetan, bai eta ehizari lotutako elementuak nahiz herri-kirolekin lotutako irudiak ere. "Bere betiko afizioak eraman ditu bere lanetara, zehaztu du alabak. "Eibarren tradizioa izan da, baina nik txikiteoa zer den ere ez dakit. Pinua, pagoa, haritza, urritza, urkia, lizarra, gorostia, artea, akazia... horrek, bai. Mendira joandakoan orduak eman ditzaket arbolei eta haien formei be-

gira". Eta heldu dio bi metro pasako arbola adar bihurri bati. Hautsa eskuarekin kendu eta ekin dio berriketari. "400 bat urte izango ditu honek. Baserriko ganbara-zuloan egon zen urte askoan. Gaztaina adarra da, eta gure birraitonak batu zuen mendian, mutikotan. Ikusten duzu goitik beherako erreten hori? Barrua ustelduta zuen jaso zuenerako; atera kontuak zenbat urte izango dituen!. Amak eskatu zidan ekartzeko eta gordetzeko", bota du. "Oraintsu arte gordea izan du kontu hori", gehitu du ondotik alabak.

Bitxikeriez hasi dela, ekarri du beste altxor bat barrutik, urte luzez baserrian gordea izan zutena: Karlitada garaiko eskopeta. "Anaiak zuen ganbaran eta zertarako zuen galdetu nionean txatarratara botatzeko erantzun zidan. Nik hartu eta etxera ekarri nuen. Kanoia eta mira bazituen, baina kaxa eta heldulekua falta zituen eta neuk egin nizkion. [Ehiztarien ibilerak ditu egurrean grabatuta, detaile txikiak ere zainduta]. Kanoia zulatzeraz eraman nuen eta hemen daukat bere agiri eta guzti, erztzainak etorritz gero ere". Ondoa, 36ko gerrako frontean milizianoaren batek galdutako kaskoa dauka, dizdiratsu. "Mendian topatu nuen. Atentzioa deitu zidan halako tontor biribildu batek eta hauxe zen. Margotu eta hor daukat, erakusteko". Bere eskuz disekatutako hegazti bat edo beste ere badu estudioan. Gaixoaldi batean ikasi zuen disekatzen, korrespondentzi bidezko irakaskuntzak ematen dituen CCC ikastetxe pribatuan izena emanda. "Animaliak zelan larrutu erakutsi zidaten eta bertara eskatzen nuen materiala ere. Disekatu nituen eper, oilagor eta katamixar batzuk; enkarguz batzuk. Baina behin ekarri zizkidaten

hiru txori eta bi katamixar batera, sikatu zitzairen larrua gehiegi eta hura lanak erabili nituena larrua bere lekura eramateko!. Aspertu eta laga nion disekatzeari". Materiala eta detaileak zaindu zalea da, eta aitortu du nekez laga duela obra bat amaitu gabe, amorrazioak jota egonda ere. "Arotzak egur txarra saldu didanean edo buruan daukadan hori egurrera eraman ezin izan dudanean ernegatu izan naiz, bai, baina segi eta segi eta irten da halakoren bat". Sitsak zulatutako katea hartu du eskuan alabak. "Pena da. Egurra da txarra hor, sasoiak botatuko egurrik ez duelako sitsak jaten. Azarotik urtarilerara bitartean hilbeheran botatuko egurra da ona. Orain, egosi egiten dituzte egurrak eta listo, baina erosteko orduan kontuan izan behar da hori". Sitsak jandakoaren ondoan, gorpurik gabeko kristo santua dago gurutzean eskegita. Bitxia egiten da beste lanen ondoan. "Flipatu egin genuen hau erakutsi zigunean. Ohituta gintuenerako oso modernoa zen", dio alabak, eta eman du azalpena artistak: "Abadeek esaten dute munduari eskaini ziola gorputza Jesusek gurutzean hil aurretik. Horixe errepresentatu nahi izan nuen horrekin".

Detaileen batura da artea Egidazurentzat, eta ñabardura txikiak ere zaintzen ditu bere obran

HIRU ADIBIDE

ARRATEKO SANTUTEGIA ETA AMA BIRJINA.....

Arrateko santutegiak eta ama birjinak aparteko pisua dute Andres Egidazuren obran, eta ez alferrik. Lotura estua izan du umetatik Arraterekin. Egidazuren osaba Pedro Gorostidi [1959an Arrate Irratia sortu zuena] Arrateko abade izan zen 50 urtez baino gehiagoan eta ume sasoiari jaiero joaten zen hara bera. Emazteak, Maritxu Olarrak, *souvenir* denda ere izan zuen santutegi atarian. Hernaniarra zen sortzez Olarra, Zaballegi baserrikoa, nahiz oso ume zela Igeldoko Martintxotegira aldatu ziren. Ahizpa moja batek eskatuta hasi zen Arrateko abadetxean zerbitzen, 17 bat urte zituela. "Arratek leku berezia izan du nire bizitzan eta Arrateko santutegia izango da sarrien margotu dudan irudia. Egin nuen lehenengo maketa ere Arrateko santutegiarena da".



ARANTZAZU.....

Ikusgarria da Arantzazuko basilikaren maketa. Arantzazu beharrez, baina, *Arantzazu* izena eman dio Andres Egidazuk bere obrari. "Sinesduna naiz. Oteizak sortu zuen Arantzazu, baina berez, nik entzuna daukat artzainari agertu zitzaiola ama birjina arantzaz, eta ikusi zuenean, hala esan ziola artzainak: 'Arantzazu zu?'. Arantzazu izena hortik dator etortzekotan".



SANTUMOTZ.....

2003an sortu zuen Andres Egidazuk Santumotzen maketa. Eta badu bere historia santuak. Honelaxe kontatu du berak: "Santumotzek ez dauka Santumotz izena. Nebera du jatorrizko izena. Santumotzen bazen bere garaian elurtegi bat, inguruko baserriarrek egindakoa. Zuloa egin, elurrarekin bete-bete egin, oinekin zapaldu eta txapa eta oholekin tapatzen zuten gero elurtegia, eta hango elur izoztua erabiltzen zuten gero jatekoak eta edanak hotz mantentzeko. Abuztuko lehenengo domekan, jaia egiten zen inguru hartan. Idortobeko, Aiastiako, Arrate bailarako, Gorostolako... baserriarrek batzen ziren bertan eta erromeria egiten zuten. Jaia, baina, demandan amaitzen zuten beti. Horregatik, sasoi hartan Idortoben zegoen maisuak, Patxi konkordunak, santu bat egitea erabaki zuen. Gure aitxixaren laguna zen Patxi eta sarri etortzen zen baserrira. Eta halako egun batean, ekarri zuen berak egindako santua, erakusteko. Santu mozkote bat zen, eta han ibili ziren aitxixa eta biak zein izen jarri erabaki ezinda. Azkenean, motza zenez, Santumotz jarri zioten. Baina hasi zen gerra, eta desagertu ziren maisua eta santua, biak. Iparraldera joan ziren zurrumurrua zabaldu zen herrian. Gerra ostean, 1940an, berriro hasi ziren baserriarrek inguru hartan batzen, baina laga zioten berriro 1955-60 aldera. Orain hamabost bat urte erabaki zuten berriro meza ematen hastea, baina santua falta zuten, eta agindu nien neuk egingo niela. Hala, joan nintzen Elgoibarko parrokoarengana baimena eskatzera. Parrokoari esan nion bakea egin nahian sortu zuela Patxi maisuak Santumotz bere garaian, eta parrokoak erantzun zidan ondo legokeela gurutze bat jartzea han. Kasu egin nion. Sortu nuen santua eta jarri nion gurutzea esku batean eta usoa bestean. Kapera Elgoibarko Udalak egin zion gero, Irunbarri baserriko semea [Jesus Mari Azpiazu] Idortobeko alkate zen garaian".





Zuen kezak, galderak edo txalok bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Iñigez Karkizao kaleko etxeen atzeko aldea zikin-zikin egoten da: "Iñigez Karkizao kaleko bizilagunok ere ordaintzen ditugu herriko zergak, baina Udala ez da gurekin gogoratzen. Gure etxearen atzeko aldea lagata dago, eta zikinkeria asko pilatzen da bertan. Sarriago garbitzea eskatzen dugu. Horrez gain, apur bat aurrerago, Gabriel Kurutzelaegi kaleko espaloian baldosa batzuk altxatuta eta erdi apurtuta daude. Inork min hartu aurretik konpontzea eskatzen dugu".



Zaborra pilatuta dago Artekalen: "Bi hilabete badira koltxoi zahar hori Artekaleko txoko horretan utzi zutela eta dagoeneko ustelduta dago. Egunetik egunera zabor gehiago agertzen da txoko horretan, eta bizilagunok uste dugu hori ez dela bidezkoa. Udalera jo dut, baita kalegarbitzaileengana ere, baina inork ez du ezer egiten. Gure kalea ez da zakarrontzi bat, eta eskertuko genuke hori garbitzea".

Basarteko eskailera mekanikoak ia egunero egoten dira geldirik: "Basarteko parketik gora doazen eskailera mekanikoak gelditu egiten ditu norbaitek ia arratsaldero. Auzoko goiko aldean bizi garenoi sekulako kaltea egiten digu horrek, eta ez dago eskubiderik. Udaltzaingoa eman dut abisua, baina esan didate eurek ez daukatela eskailera martxan jartzeko giltzik, eta, ondorioz, mantentze lanak egiten dituen enpresako langileak etorri arte ezin izaten direla eskailera martxan jarri. Errespetu apur bat eskatu nahi nuke".

Elgoibartik Donostiara joateko daukagun autobus zerbitzua oso txarra da: "Elgoibartik Donostiara autobusez joateko arazoak ditugu. Batetik, autobus gutxi daude, eta bestetik, autobus horiek askotan beteta iristen dira Eibartik eta Elgoibarren ez dute jenderik hartzen. Azterketak izan dituzten garaian unibertsitatera joan ezinda geratu izan dira ikasleak, autobusean lekurik ez zegoelako. Asteburuetan ere gauza bera gertatzen da. Elgoibarko Udalak ezin al du ezer egin Lurraldebussek gure herrirako zerbitzua hobetu dezan? Bilborako autobusa ere kendu ziguten orain dela urte batzuk, eta Donostiara joateko zerbitzua gero eta okerragoa da. Gero garraio publikoa erabili behar dugula diote agintariek! Jar dezatela, bada, ganorazko zerbitzua, eta erabiliko dugu!".



Jesus Mari Azpiazu Amuategi

"Txorti"

2020ko urtarrilaren 21ean hil zen.

Betirako izango zaitugu gogoan.

Moru-San Pedro Elkartea.





Arg.: Aitor Zabala

Urazandiko Auzo Elkarteak urtarilaren 15ean egin zuen batzarreko argazkia.

Urazandi ere Elgoibar da

Urazandi auzoko bizilagunek bat egin dute beraien beharrak Udalari modu bateratuan eta formalean aurkezteko. Orain arte auzotarrak banaka joaten ziren nor bere beharrak azaltzera, baina modu horretan eginda baino taldean eginda eraginkorragoak izango direlakoan, elkartea eratu dute. Urazandi Auzo Elkartea sortu dute, eta hasi dira lanean. Beraien helburu nagusia Urazandirako irisgarritasuna hobetzea da.

- AINHOA ANDONEGI -

Urazandi, hitzak berak etimologikoki esaten duen moduan, uraz handik dagoen auzoa da. Orain dela 45 bat urte sortu zuten auzoa, eta gaur egun bi mila biztanle inguru bizi dira. 11.000 lagun inguruko biztanleria duen herri batean kontuan hartzeko moduko auzoa dela uste dute auzokideek, baina urteetan, "ahaztuta" sentitu dira. Urazandiko bizilagunek banaka eta talde txikitan batuta jardun dute orain arte Udalari auzorako hobekuntzak eskatzen, herritar bezala dituzten eskubideak "exijitzen", eta agintariek eskari horietako batzuk aintzat hartu badituzte ere, konturatu dira taldean batuta eraginkorragoak izateko aukera dutela. Hori dela eta, elkarte bat sortzeko prozedimendua hasi zuten iaz, eta dagoeneko prest dute taldea: Urazandi Auzo Elkartea sortu dute, eta auzoaren eta auzotarren alde lanean ari dira. Helburu nagusia auzotarren bizi-kalitatea hobetzea da, eta horretarako, bizilagunen beharrak jasoko ditu elkarte honek. No-labait esateko, bizilagunen eta Udalaren arteko zubi lana egingo dute elkarte kideek.

Aurrekariak

Urazandiko bizilagunen kezkarik handiena auzorako irisgarritasuna da: "Herritik gertu, baina aldi berean, urrun gaude" esan dute Urazandi Auzo Elkarte kideek. Oinezkoentzako irisgarritasunaz ari dira, bereziki. King-Kong zubia da urteetan Urazandiko bizilagunen arazo nagusia. Zubia zaharra da, eta ez ditu irisgarritasun neurriak betetzen. Orain dela urte batzuk eskilarak zituen zubiak, eta gurpildun aukian eta ume kotxearekin ibiltzeko zailtasunak eragiten zituen. Bizilagun batzuek eskailera horiek kentzeko eskatu zioten Udalari, eta ha-

laxe egin zuen Udalak, baina arazo bati emandako irtenbideak beste arazo bat ekarri zuen: zubiak aldapa handia dauka gaur egun, eta labaina da euria egiten duenean. Elkarte kideek esan dute neurtuta dutela eta legeak onartzen duena baino pen-diz handiagoa duela aldapak. Egoera horren aurrean, bizilagun batzuk sinadurak bildu zituzten iaz, zubi "seguru eta erabilgarri" bat eskatzeko. Urazandiko portal guztietan jarri zituzten sinadurak batzeko orriak, eta, auzotar askok egin zuten bat ekimen honekin. Hori izan zen auzo elkartea sortzera bultzatu zituen ekimena. Maiatzean egin zuten lehen auzo-bilera, eta ehun lagunetik gora batu ziren. Batzar hartan eratu zuten zuzendaritza batzordea, eta lanari ekin zioten.

Bi aldiz batu ziren iaz elkarte kideak Udaleko agintariek, eta argi utzi nahi dute Udalarekin orain arte izan duten harremana oso ona izan dela. Udalak ondo hartu ditu, eta euren eskaera guztiak entzun eta ulertzen dituela adierazi die, eta baliabideen arabera, auzorako hobekuntzak egiteko konpromisoa erakutsi die. Esate baterako, Pilarreko aparkalekua garbitzeko eskatu zioten Udalari, eta handik gutxira, orubea txukundu zutela azaldu dute, "erabat eskertuta". Era berean, Udalak auzorako dituen proiektuen berri ere eman diete elkarte kideei, eta "pozik" hartu dituzte auzotarrek, "berri onak" direlakoan. Apirilera hitzartu dute hurrengo batzarra Udalarekin. Elkarte kideek nahi dute Urazandirako diren proiektuak auzotarrekin elkarlanean adostea, eurek ezagutzen dituztelako inork baino hobeto auzoak dituen beharrak. Ez dute nahi Udalak "pastela eginda" ematea, pastela eurekin egin nahi dute.

Auzo duin eta irisgarria nahi dute, bizilagun guztiak euren etxetik irten eta etxera modu errazean iristeko moduko auzoa. Urazandiko leiho askotan "salgai" kartelak zintzilikatuta daude, adineko bizilagun askok kalera jaisteko arazoak dituztelako, eta ezinbes-

tean, kalean aurkitu behar izan dute bizitokia. Eta ez dute hori nahi. Auzoko zaharrek auzoan bizi eta hil nahi dute, eta horretarako bideak jarri nahi ditu Urazandi Auzo Elkarteak, Urazandi ere, Elgoibar delako.

AUZOTARREN ESKAKIZUN GARRANTZITSUENAK



Jose Angel Rodriguez, Loli Outumuro, Iñaki Insausti, Arsenio Martinez eta Antonio Rodriguez zuzendaritzako kideak.

◆ **King Kong zubia:** King Kong zubia bota eta berria egitea izango litzateke Urazandiko bizilagunen ustez egokiena. Zubi hau Urazandiko bizilagunek ez ezik, Herri Eskolara joaten diren askok ere erabiltzen dute, beraz, euren ustez lehenasunezko kontua izan behar luke Udalarentzat. Autobus geltokira joateko bidea ere bada, eta jende asko ibiltzen da egunero zubian zehar. Autobus geltokira joateko eskailerak daude, eta ume aulkarekin edo gurrildun aulkian joateko Merkatu Plaza atzeko bidea edo errepide ondoan dagoena erabili behar dira, zubiak oztupoak dituelako. Udalak jakinarazi die King-Kong zubiaren gaia aztertzeke lanak hasi dituela. Zubiaren malda murriztu, irisgarritasun legedira egokitu eta autobus geltokira iristeko bidea hobetzeko dauden aukerak aztertu eta identifikatuko dituen ikerketa egiten ari da Injelan enpresa, Udalak hala eskatuta. 7.693,50 euro bideratu ditu Udalak azterketa hori egiteko. Jasotzen dituzten aukeren arabera hartuko dituzte gero erabakiak.

◆ **Igogailuak:** Urazandi auzoak "eskailera gehiegi" ditu. Orain dela urte batzuk inbertsio handia egin zuen Udalak Urazandin eskailera mekanikoak jartzen, eta horri esker, gaur errazagoa da auzoaren goi-goiko puntaraino igotzea, baina "eskailera mekani-

koek igotzeko bakarrik balio dute", eta gainera, gurrildun aulkian edo ume karroarekin igotzeko ez dute balio. Horren harira, Udalak onartu du auzorako lehenengo eskailera mekanikoak kendu eta igogailuak jartzea. Pozez hartu dute berri hori auzokoek, eta espero dute aurrerantzean auzoko goi-goiko etxeetara joateko ere igogailuak jartzea.

◆ **Auzorako sarrera-irteera:** Auzotik irteteko beste bide bat eskatzen dute, istripu edo suterren bat egongo balitz, auzotik irten ahal izateko. Gogoan dute PSEren egoitzan bonba jarri zutenean Urriako bidetik sartu eta irten behar izan zutela, auzoa "blokeatuta" gelditu zelako. Herri Eskola atzetik Lerun Txikira 400 metro baino ez daudela esan dute, eta hor bide bat egitea eskatu diote Udalari.

◆ **Norabide bakarra:** Urazandiko tarte askotan ez dago bi auto gurutzatzeko toki nahikorik, eta Herri Eskolarako autobusa igotzen denean arazoa areagotu egiten da. Auzo elkarteek uste dute egoera hobetuko litzatekeela ibilgailuentzako norabide bakarra jarrita. Horretarako, Galiza Etxe aurrean dagoen parkea Urazandi kalearekin lotu beharko litzateke.

◆ **Komuna "tontodromoan":** Tontodromoa izenez ezagutzen den parkean lagun asko ibiltzen dira pasiaran, eta ez dago komunik. Eskaera bideratu dute Udalean, eta erantzunaren zain daude.

◆ **Herri Eskolarako irisgarritasuna:** Maala ingurutik Herri Eskolara jende asko joaten da, eta inguru horretan ere igogailu bat egiteko beharra ikusi dute. Hirigintza planean Urazandi Berri izenez agertzen da ingurune hori guztia, baina momentuz geldirik dago, eta auzoko kideek proiektu hori alhora ez uzteko eskatu diote Udalari, auzorako irisgarritasunerako "oso garrantzitsua" delako.

◆ **Urazandi eta Aizkorri arteko bidea:** Herriarren eskaerari erantzuna eman dio Udalak Urazandi eta Aizkorri lotzen dituen bidea eginez, eta elkarteek eskertuta daude, baina, aldi berean, atsekabetuta ere bai, bide horren bukaeran eskailerak daudelako. Eskailera horiek oztupo dira Aizkorri kalera edo Txankakuako autobus geltokira iristeko, eta iruditzen zaie behin obra hori egiten hasita, ondo amaitzea falta izan zaiela.

INFORMAZIORAKO ETA KONTAKTURAKO BIDEAK:

- ◆ urazandiauzoa.blogspot.com
- ◆ urazandiauzoa@gmail.com
- ◆ **Asgi tabernan iradokizunetarako buzoia jarri dute**

Urtarrilaren 30erako deitutako greba orokorrari babesa agertzeraz deitu dute Elgoibarren biharko

Bizitza, lan eta pentsio duinen alde, greba orokorrerako deia eginda dute Euskal Herriko Gutun Sozialaren sustatzaileek urtarrilaren 30erako, pentsiodunen mugimendutik "beste pauso bat" emateko egindako eskaera aintzat hartuta [ELA, LAB, Steilas, ESK, Hiru, Etxalde eta EHNE sindikatuek eta dozenaka gizarte eragilek osatzen dute taldea]. lazko urriaren 24an egin zuten deialdia eta urtarrilaren 9an erregistratu zuten deialdia sindikatuek Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuko Lan Dele-



garizetan. Erregistratu zuten egunean, grebarako arrazoiak deialdia egin zutenean baino gehiago zirela nabarmendu zuten deitzaileek, baina ez dute denek ala ikusten. EHBilduk ez beste alderdi guztiek, esaterako, "kutsu politikoa" ikusi diote grebari eta hauteskunderi begirako greba dela esan dute. Elgoibarren, joan zen astean bildu zen greba batzordea eta grebari atxikimendua agertzeraz deitu dituzte biharko herritarrak (Kalegoen plazan, 13:00etan). Bestetik, Elgoibarko pentsiodunen mugimendua urtarrilaren 13ko batzarrean egin zuen bat greba deialdiarekin, eta Bilduko Elgoibarko ordezkariak ere publikoki agertu diote babesa.

Grebarako arrazoiak

"Grebarako arrazoiak hamaika dira, eta bai, jakina, greba politikoa da, borroka oro da politikoa. Bizitza duina nahi dugu, eta horrek bere baitan borroka asko elkartzen ditu. 30 puntutara ekarri ditugu eskaerak eta irakurtzen duen edonork ikusiko du grebara deitzeko sobera arrazoi daudela, bistakoa delako lan-baldintzak etengabe ari direla prekarizatzen eta pobrezia gero eta handiagoa dela gurean ere", adierazi du Amagoia Lasagabasterrek, ELAk Deba arrorako duen ordezkariak. Batetik, eskatu dute 2011 eta 2013ko erreformetan onetsitako pentsio-murrizketak indargabetzea eta pentsioak KPlaren arabera eguneratzea, eta bestetik, Zapateroren eta Raxoiren lan-erreformak bertan behera lagatzea. Horrez gain, eskubide sozialak bermatzeko ere exijitu dute. Eskaera guztien artean, badira zuzenean EAEko eta Nafarroako instituzioei egindakoak: eskatu diete euren "erantzukizunak" onartzeko eta bide horretan aurrera egiteko neurriak hartzeko, esaterako hauek: aurrekontu orokorren bidez, gutxieneko pentsioa legez 1.080 euro arte osatzea, 1.200 euroko gutxieneko soldata eta 35 orduko gehienezko lanaldia ezartzea, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren inguruan eta etxebizitza eskubidearen alde Eskubide Sozialen Kartak sustatutako Herri Ekimen Legegilea onar-

tzea eta lan arloan ematen den soldata arrakalaren, diskriminazioaren eta indarkeria matxistaren aurkako legea onartzea.

Ilñigo Urkullu Jaurlaritzako lehendakariak grebaren kontra esandakoei ere erantzun diete sindikatuetatik. Urkulluk esan zuen Jaurlaritzak ez daukala eskumenik grebarako aldarri diren alorretan, Espainiako Gobernuarenak direla. Ez datoz bat sindikatuak. Jon Iparragirre *Kirru* LABeko ordezkariak esan du pentsioen gaian, esaterako, Jaurlaritzak baduela nahi izanez gero gutxieneko pentsioak osatzeko modua, baina "borondatea" falta duela: "Urkullu greba desakreditatu nahian ari da, euren esku dituzten bitarteko guztiak erabilia, tartean EITB. Eskatzen dena ez dela bere eskumeneko kontua dio, baina ez dezala inor engaina. EAjk sekula ez du greba orokor bat babestu. Prekarietatea bultzatzen ari den patronalarekin gauza askotan egiten du bat, baina gero ez du bildu nahi prekarietatea eta pobrezia amaitzeko proposamenak egiten dituen gehiengo sindikalarekin eta sozialarekin". Elkarrekin Podemosena beste kasu bat da Lasagabasterren ustez: "Ez dut uste grebarako arrazoiak kontra daudenik, baina kontua da aurrekontuak hitzartu dituztela Madrilen eta ez daudela orain grebari bai esateko. Baina leloa pentsiodunei hartuta esango dizut agintzen duenak aginduta ere, gu politikak aldatzeko gaudela". Greba egitea "ezinbestekoa" ikusten dute sindikatuek, eta pozik daude orain arte bildutako atxikimenduekin eta jendeak agertutako interesarekin. "155 ordezkari batu genituen joan zen astean grebaz hitz egiteko eta nik sekula ez dut ikusi halakorik hemen", esan du Lasagabasterrek. Enpresaz enpresa ari dira lanean egunotan greba sozializatzen, eta greba batzordeak ere eratu dituzte han eta hemen. Batzordeetan arnastu dutenarekin, grebak "jarraipen handia" izango duela iragarri dute. "Beste biderik ez dago. Gaur dauzkagun eskubideak ere ez dizkigu inork oparitu. Borrokatuta lortu ditugu. Boteretze armarik eraginkorrena da protesta", gehitu du.

Magnet-Erakarri proiektu pilotua jarri du martxan Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Herri Eskolan

Hezkuntza Sailak Magnet-Erakarri proiektu pilotua martxan ipini du Euskal Autonomia Erki-degoko lau ikastetxetan, eta horietako bat izan da Elgoibarko Herri Eskola. Hiru urteko iraupena dauka egitasmo honek, eta berari esker,



hainbat helburu lortzeko asmoa dauka Herri Eskolak: Metodologia berritzaileetan oinarria duen Hezkuntza Proiektua orokortzea eta sistematizatzea, kalitatean eta ekitatean oinarritutako proiektua lantzea, ikastetxearen identitatea sendotzea, inguruan erreferentziatzeko proiektu bilakatuz, eta eskolak bere inguru sozioekonomiko eta kulturalarekin duen lotura naturala sendotzea.

Eskolaren eta inguruko bikaintasuneko erakunde baten artean elkarlana gauzatu nahi dute proiektu honen bidez; kasu honetan, Herri Eskola eta IMH-ren artean. Elkarlan hori Zientzia eta Teknologia alorrean gauzatuko da. Ildo honetan, zientzia eta teknologiarako bokazioa sustatuko dute, eta zientzia, teknologia, matematika eta ingenieritza gaiak uztartuz, oinarritzko eta zeharkako konpetentziak garatuko dituzte.

Herri Eskolak bere helburuak lortzeaz gain, aliantzazko erakundeak ere onurak jasoko ditu, kasu honetan IMHk. Besteak beste, lortuko dute beren gizarte-konpromisoa aktiboki sendotzea, eskolarekin hezkuntza-esperientzia berritzaileak eraiki eta garatzea, sarean lan egitea eta hezkuntza-komunitateari eta gizarteari, oro har, euren ezagutza ematea.

Bilau taldearen kontzertua gaur zortzi, sotoan

Bilau taldearen kontzertua antolatu du Sinuösek urtarrilaren 31rako. Xabi Etxeberri, Jeremie Garat, Elorri Faixa eta Paxkal Irigoienek osatzen dute Bilau laukotea. Zenbait kontzertu eskaini ondoren, 2017an kaleratu zuten lehen diskoa. Sei



kantuko bilduma da; bare-bare hasi eta apurka-apurka intentsitatea hartzen duten sei kantu. Folketik zerbaite dutela esan daiteke, *slowcore*a ekar dezaketeko gogora, baina etiketatik harago, sinpletasuna dotorezia handiz mamitzen duen taldea da Bilau. 23:00etan hasiko da emanaldia, Kultur Etxeko sotoan.

Zigilu erakusketako partaideak omenduko dituzte bihar

San Anton Egunaren bueltan antolatzen du urtero zigilu erakusketa Altzolatarren Dorretxeak, eta aurten ere halaxe egin du. *50 Txiki Elkarrekin izan da* aurtengo gaia, eta Mauxitxa txaranga omendu dute. San Anton Egunean bertan zabaldu zuten erakusketa, eta bihar itxiko dute. 11:00etan Euskadiko Filatelia Elkarteak urteko lehen batzarra egingo du Kultur Etxeko hitzaldi gelan, eta 13:00etan hasiko da esker-ona adierazteko ekitaldia. Azken hau erakusketa gelan egingo dute.

2021eko egutegirako argazki lehiaketa martxan da

2021eko egutegirako argazki lehiaketa antolatu dute Euskara eta Berdintasun sailek, Ongarri argazkilari elkartearekin lankidetzan. Bazterkeriatik berdintasunera gaia islatu beharko dute parte hartzaileek irudietan, eta ez dituzte onartuko herriko zein lekutan eta noiz atera diren aditzera ematen ez duten argazkiak. Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten duten 16 urtez gorakoek izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera. Urriaren 8ra arte dago parte hartzeko epea.

Santa eskea Mendaron eta Elgoibarko kaleetan

Etxegiña taldekoak otsailaren 1ean irtengo dira santa eskean Elgoibarko kaleetan, eta horretarako bi entsegu egingo dituzte: urtarrilaren 28an Kultur Etxeko sotoan, eta 30ean, Aita Agirreko areto nagusian. Biak 20:00etan izango dira. Aurten ere Ikastolako eta Herri Eskolako ikasleek prestatutako koplak abestuko dituzte. Goizeko 9:00etan hasiko dira kantuan, eta 8:45ean talde argazkia aterako dute Kalegoen plazan. Mendaron, berriz, otsailaren 8an egingo dute santa eskea. 8:30ean batuko dira Herriko Enparantzan, eta kale zein baserriak koplaturiko dituzte.



Murua eta Uriondo nagusitasunez gailendu dira San Anton Pilota txapelketan


Kastolako frontoia ia beteta zegoela jokatu zituzten 28. San Anton Pilota Txapelketako finalak San Anton Egunean. Lehen finalean promesa mailako pilotariak aritu ziren lehian. Horietako bi, Alberdi II eta Apezetxea, hirugarren aldiz ailegatu ziren finalera. Aurreko bi txapelketak, baina, elkarrekin jokatu zituzten eta bietan irabazlearen txapela jantzi zuten. Oraingoan, aldiz, elkarren aurka jokatu zuten eta ikusteko zegoen bietako noren burura joango zen txapela, hirugarren aldiz jarraian. Partida orekatua jokatu ostean, Alberdi II azpeitiarrak eta Aimar Morgaetxeberria zornotzarrek osatutako bikoteak 22-19 irabazi zuen De La Fuenteren eta Apezetxearen aurka. Unai Alberdi (Azpeitia, 1999) aukeratu zuten finaleko pilotaririk onena.

Emozio gutxi partida nagusian

Senior mailako partidaren emozio gutxiago egon zen. Bikote gorriak, Ander Murua arrasatearrak eta Endika Uriondo atzelari gizaburuagarrak osatutakoak, huts gutxiago egin zuten partidaren hasieran, eta konturatu orduko alde nabarmena lortu zuten markagailuan. Iñaki Elola bidaniarrak eta Iker Mariezkurrena berriozartarrak [Jon Mariezkurrena pilotari profesionalaren anaia] osatutako bikotea partida berdintzen saiatu zen arren, behartu gabeko huts dezente egin zituzten eta bederatzigarren tantoan gelditu ziren. Muruari, Arrasateko aurrelariari, eman zioten finaleko pilotari onenaren saria.



Mendi eskia eta sagardotegia, Morkaikoren otsailerako proposamenak



Morkaiko mendi taldeak mendi eski irteera antolatu du otsailaren 8-9 astebururako. Otsailaren 8ko goizean irtengo dira autobusez Pirinioetarantz, eta Zurizako aterpetxean hartuko dute ostatua. ARVA, pala, sonda, kranpoiak eta pioleta eramatea ezinbestekoa dela jakinarazi dute, eta baita federatua egotea ere. Material guztiak ez dutenei behar dutena lortzen lagunduko dietela ere gaineratu dute. Otsailerako beste irteera bat ere antolatu du mendi taldeak, otsailaren 15erako hain zuzen ere. Goizeko mendi irteeran Irungo Ola sagardotegitik irtengo dira eta Erlaitzeko barrakoiak, Ingelesaren Gaztelua, Elurretxe elurzuloa eta Arburuko Harritik pasa eta gero, Ola sagardotegira itzuliko dira, bazkaltzera. E-postaz (morkaiko@morkaiko.eus) nahiz Morkaikoren egoitzan eman daiteke izena. Bulegoa eguaztenetan zabaltzen dute, 19:00etatik 20:30era.

Natura eta zientzia jardunaldiak antolatu ditu Morkaikok bigarrenagoz

Mendizaletasunak eta natura ezagutzeko griñak lotura handia dute ikerkuntza zientifikoarekin, eta horregatik, zientzia-ezagutza modu erraz eta dibulgatiboan publiko orokorrarengana hurbiltzeko apustua egin du Morkaikok, natura eta zientzia jardunaldien bigarren edizioa antolatuta. Hala, Morkaikok segida emango dio estreinakoz 2017an antolatu zituen jardunaldiei. Bigarren ekitaldi honetarako hiru saio prestatu dituzte, otsaileko hiru eguaztenetarako. "Hitzaldi-ziklo honen bitartez mendizaletasunaren eta naturaguneen inguruan erkatzen diren ikerketa-zientifikoak, bidaiak, espedizioak eta kultur proposamenak ezagutzera eman nahi ditugu. Hori dela-eta, programa zabala, anitza eta parekidea osatzeko ahaleginak egin ditugu", esan dute Morkaikotik. Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi-gelan izango dira hitzaldi guztiak, 19:30ean hasita. EHUko Geodinamika Saileko kide Iñaki Antiguedadek eta Ane Zabaletak emango dute aurreneko hitzaldia, *Klima-aldaketa, uraren ikuspegiatik* izenburukoa, otsailaren 5ean. *Euskal Herriatik Pakistanera, Atapuercatik igaroz* izango da bigarren hitzaldiaren izenburua. EHUko Petrologia eta Mineralogia saileko kidea den Arantza Aranburuk emango du, otsailaren 12an. Hirugarren eta azken hitzaldia Eñaut Izagirre elgoibartarrak emango du otsailaren 26an. EHUko Geodinamika Saileko kidea izateaz gainera, klima aldaketa ikergai duen Basque Centre for Climate Change (BC3) ikerketa zentroko kidea ere bada Izagirre. Pirinioetako glaziarren bilakaera eta egoera izango ditu hizpide ikerlari elgoibartarrak.



Bide berria ireki du Alberto Fernandez kide izan den soka-taldeak Tozal de Riperearen ipar horman

Mikel Zabalza, Iker Madoz eta Alberto Fernandezek osatutako korda-taldeak mistoko bide berria zabaldu du Pirinioetan dagoen Tozal de Ripera (2.647 metro) mendiaren ipar horman, bi eguneko eskalada saioa eginda. Mendizaleek *Julia* izena jarri diote zabaldutako bide berriari. Hamaika luze eskalatuta osatuta lortu zuten 700 metro luzeko bide berria irekitzea, eta honako zailtasuna du: ED, 6a, M6 eta 90°. Zehatz-mehatz esanda: librean 6a, mistoan M6 eta izotzean 90°. Eta, datu teknikoak eskalatzaileen sentazioetara ekarrita, hau litzateke: Pirinioetako paretarik "ederrenetarikoa" bide "handia" ireki dutela eta "izugarri abentura ederra" izan dela haientzat. Informazio osoagoa barren.eus-en.




Jesus Mari Azpiazu Amuategi

"Txorti"

2020ko urtarrilaren 21ean hil zen.

**Hainbat urtean elkarlanean
dena emanez elkarri,
bihotz askotan duzu lekua,
bizi zaren ezaugarri.**

Elgoibarko Trinitate ferriako jai batzordea



LANA.....
Eskaerak

Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak orduka (goizez edo arratsaldez) lan egiteko prest. ☎ 631 558 243

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko lanak egiteko ere prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 631 931 030

Urtebeteko esperientzia daukat adinekoak zaintzen. Umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko ere prest nago. ☎ 615 526 482

Adinekoak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia. ☎ 612 202 517

Adinekoak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia. ☎ 632 729 261

Adinekoak zaintzen eta etxeko lanak egiten esperientzia daukat. Orduka edo etxeko langile bezala lan egingo nuke. ☎ 632 992 730

Pertsona arduratsua lan bila. Adinekoak zaintzen eta etxeko lanak egiten esperientzia. ☎ 636 009 215

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. ☎ 631 489 128

Lan bila nabil. Umeak eta adinekoak zaintzen esperientzia daukat. ☎ 631 078 895

Garbiketak egin eta adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 603 580 369

Adinekoak nahiz umeak zainduko nituzke, bai eta etxeko garbiketa lanak egin ere. Orduka nahiz etxeko langile moduan lan egiteko prest. ☎ 632 354 511

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia handia. ☎ 643 278 344

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut. ☎ 671 989 434

Garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. ☎ 688 698 854

Adinekoak zaintzeko, lokalak garbitzeko edo zamalanearako prest nago. ☎ 631 049 957

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 631 436 925

Adinekoak eta umeak zaindu, garbitzaile lanak egin nahiz baserriko lanetan lagunduko nuke. ☎ 632 423 521

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 622 153 750

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke, bai eta garbiketa lanak egin ere. Etxeko langile moduan aritzeko ere prest. ☎ 631 439 959

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai. ☎ 643 977 786

Garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 637 102 725

Eskaerak

Asteburuetan lan egiteko ile-apaintzaile behar da. ☎ 943 246 225

DBH1eko klase partikularrak emango lituzkeen pertsona baten bila nabil. ☎ 644 391 912

Unibertsitateko hautaprobea prestatzeko irakaslea behar da. ☎ 688 851 167

Asteburuetan zerbitzari lanetan aritzeko pertsona behar da. Ezinbestekoa esperientzia. ☎ 659 539 861

Abentura jardueretarako (Paintball) monitoriak behar dira asteburuetarako. Euskara jakitea beharrezkoa da eta gidabaimena izatea baloratu da. ☎ 660 450 245 (Ainhoa)

GARAJEAK.....

Garaje itxia alokatzen dut Jausoro plazan. Kotxe handia kabitzen da. Udaletxetik gertu. ☎ 672 422 237

ETXEBIZITZAK.....

Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 637 966 749

Etxea alokatzen dut, San Roke kalean. Bi logela, bi komun. Etxe polita, berri-tua. Iggogailua eta lur erradiatzailea, Bista politik, logela guztiak kanpoaldera ematen dute. ☎ 660 042 159 (Arratsaldez).



LAGUNAK
colchonera textil hogar

Etorri eta bisita gaitzazu,
kalitatezko chunak
topatuko dituzu!


MERKEALDIA

%25eko beherapena
Quality eta Kol etxeetako
nordikoetan

%45eko
beherapena umeen izara
eta ohe estalkietan

%40ko beherapena
manta eta izaretan

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com




Consejo Vasco de Colegios
de Administradores de Empresas
Instituto Vasco de Administradores
Laborales Económicos

**Gure komunitateko azken solairuan terraza bat dago. Etxejabe bakar-
rrak dauka hara sarbidea, eta terraza, aldi berean, azpiragoko etxe baten
sabaia ere bada. Hain justu, etxejabe horrek hezetasun arazoak dauzka
sabaian eta terraza konpontzeko eskatu dio komunitateari. Hala ere, gain-
nerako jabeek adierazi dute konponketa terrazan jabe titularrak egin
behar duela. Jakin nahi nuke nork ordaindu behar dituen obrak.**

Planteatzen den gaia ohikoenetako bat da, bai eta gatazka gehien sortzen
duena ere. Ikusi behar da terraza goiko etxebizitzaren jabearen jabetza pribatiboa
den, ala nahiz eta berak bakarrik erabili, elementu hori komuna den. Pisuaren
deskribapenaren azalduko da hori.

Nagusiki kontuan hartu behar dena da iragazgaitza bideratutako elementu
materialak elementu komunak direla beti, terraza arrunta edo pribatiboa izan.
Eta, beraz, iragazgaitze-elementu horiek konpontzea komunitateari dagokio. Are,
komunitateak bakarrik dauka horiek manipulatzeko baimena, Jabeen Batzarrak
konponketaren hedadura eta izaera zehaztu ondoren. Izan ere, ez da gauza bera
adabaki bat jartzea eta iragazgaitzea bere osotasunean ordezkatzea.

**ONDORIOA: Obra horien gastua ordaindu behar duen pertsona indi-
bidualizatzeko puntuan dago arazoa. Komunitatea den edo terrazaren
erabiltzailea terrazaren jabea izan edo ez. Profesional batek erabaki
behar du hori, zeinak, obrak egin aurretik, terraza aztertu eta hondatzea
eragin zuten arrazoiak zehaztu behar dituen. Kausak izan daitezke na-
turalak, baina izan daitezke erabilera oker baten edo deskuiduren baten
ondorio ere. Esate baterako, oinarri duen lurzoruari eragiten dioten al-
tzariak erabiltzea, hustubideak ez garbitzea, putzuak sortzea ... edo, hala
badagokio, arrazoi mistoak izan daitezke. Kasu horretan, konpontzeko
ardura konpartitua izango da.**



**ROSA M^a
PINTADO**

*Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen ardu-
raduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gi-
puzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta
Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentzia-
tua. Kolegiatu zenbakia: 749*


660 969 679
rosapf@telefonica.net

**ASESORIA
GO/R** AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



ZORIONAK

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Oihan Egañari**, bihar 3 urte beteko dituelako. Muxu potolo bat, etxeko guztion partez.

Zorionak, **Alaia**, astelehenen urtetxo bat beteko duzulako. Muxu bat, Elgoibarko iratxoaren partez.

Zorionak, **Lander!** 10 urte egingo dituzu eta espero dugu oso ondo ospatzea. Familiakoekin partez, muxu potolo bat.

Jon Arana
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 067 337
Astelehenetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larribatak: 11:00 - 13:00

Leopoldo! zerbitzua daukagu.
Deitu ordua hartan.

GRUNDIG GWN 38230 ARROPA GARBIGAILUA



369 €

8kg - 1200 R.P.M. - A+++ - 3 urteko bermea - Exo motor
14 minutuko programa - Garbiketa programaturiko hasiera

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Elgoibarko haurreskolak MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK!



www.haurrekolak.net



Urtean 18.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten familiak doan sartu ahal izango dira.

Haurreskolan aldi berean ume bat baino gehiago edukita, kuota bakar bat ordainduko da.



Deitu eta informa zaitez!

943 742 141

24 BARIKUA

22:00 Euskal Herriko mus txapelketako Mendaroko kanporaketa. Aitz Beltz tabernan.

25 ZAPATUA

11:00 Filatelia Elkarreetako Euskal Federazioaren lehen batzarra. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

13:00 '50 Txiki Elkarrekin' Filatelia erakusketaren amaiera eta parte-hartzaileei eta laguntzaileei eskerrak emateko banaketa. Kultur Etxeko sotoan.

13:00 Urtarrilaren 30eko grebari babesa agertzeko bilkura Kalegoen plazan.

26 DOMEKA

11:45 Sendi Anaitasuna elkarrearen batzar nagusia Mendaron. Azpilgoetako elizan.

16:30 Wonder filmaren emanaldia, Mendaroko San Agustinen.

27 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabetza tailerra: 'Eta urte berrirako nire asmoak?'. Loredi Salegik gidatuko du. Berdintasun Sailak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Doan.

19:00 Epeletan literatura tailerra: Jasone Osoro. Udal Liburutegian.

19:00 Pentsiodunen aldeko mugimenduaren bigarren urteurrena ospatzeko elkarretaratzea eta mokadutxoak. Kalegoen plazan.

29 BARIKUA

17:30 Jubilatuen Egoitzako bazkideen batzarra. Egoitzan bertan.

30 EGUENA

19:00 Isiltasun Eskolako saioa. Kultur Etxeko sotoan.

31 BARIKUA

23:00 Kontzertua: Bilau taldea. Siñösek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

Zinea (Herriko Antzokian)

'Dios mío, ¿pero qué te hemos hecho ahora?'	24 barixakua: 21:30 25 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS) 26 domeka: 19:00 27 astelehena: 21:30	'Lo que arde' (Ongarri zinekluba) 30 eguena: 21:30	'Mr. Link: Jatorri galdua' (euskaraz) 26 domeka: 16:30
--	--	---	---

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00


GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
24 BARIKAKUA	25 ZAPATUA	26 DOMEKA	27 ASTELEHENA	28 MARTITZENA	29 EGUAZTENA	30 EGUENA	31 BARIKAKUA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego
* Fernandez: Herriko enparantza, 4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142		* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638		* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384		Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00 Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar) 943 206 984	



II. URTEURRENA

Angel Arrieta Garate

2018ko urtarrilaren 21ean hil zen, 79 urte zituela.
Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, domekan,
urtarrilaren 26an, 12:30ean, Mendaroko Azpilgoetako eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



etxegain
BIZIGUNEA

ARGITU ZURE IKUSPEGIA
ETA ETOR ZAITEZ
etxegain-ERA

4. PISUA
2 logela - 2 bainu
Hornitutako
sukaldea
140.000 €

2 ETA 3 LOGELAKO ETXEBIZITZA

IKUSPEGI ZABALAK DITUZTEN
TERRAZAK

TXOKOA DUTEN BEHEKO SOLAIRUAK
GARAJEA SARRERAREKIN

GARAJEA ETA TRASTELEKUA AUKERAN

BEHE SOL
Terraza 180 m²
Garaje itxi bikoitza
220.000 €

★
1. PEORAKO
AZKEN HIRU
ETXEBIZITZAK!
3 logelako etxebizitzak
185.000 €-tik hasita
INFORMA
ZAITEZI!

elgoibar

WWW.ETXEGAIN.COM

GE grupo eibar
inmobiliaria

943 31 66 11

E.: comercial@grupoeibar.com

San Francisco 32, bajo - 20870 Elgoibar

689 66 08 01

OSOA FINANZIARIAK FID: CA

bankoa | Groupe
Crédit Agricole

**AURRERIKOĀTU
- IAREKIAK 2020**

Sartu www.gipuzkoa.eus/partaidetza webgunean eta aukeratu
Gipuzkoaren etorkizuna eraikitzen jarraitzeko proiekturik interesgarrienak.

Proiektuen hautaketa: 2020ko urtarrilaren 21etik otsailaren 7ra.

Gipuzkoako
Foru Aldardía
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



1979

Aste honetako erretratu zaharra Jesus Agirrebeñak lagatakoa da. 1979an Sallobenteko frontoian jokatu zuten I. Artazo Pilota Txapelketan ateratako argazkia da. **Zutik:** Mendikute (†) eta Txurruka Lehen Mailako txapeldunak, Jose Bollar (epailea), Justo Juaristi 'Artazo' (†) eta Agirrebeña eta Gabilondo txapeldunordeak. **Behean:** Zabaleta eta Txillarre Bigarren Mailako txapeldunordeak, eta Justo Arriola (†) eta Esteban Arrillaga (†) Bigarren Mailako txapeldunak.

Erretratu zaharrak behar ditugu. Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

1. Barreneko bulegora ekarri: Kalebarren plaza, 2
2. E-postaz bidali: barren@elgoibarkoizarra.eus



Jesusa Odria Barrenetxea

2020ko urtarrilaren 20an hil zen, 87 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



ELGOIBAR BHI INSTITUTUA

2020-2021 Zatoz!

2020/21 ikasturterako DBHko aurrematrikula
urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra

Gurasoentzako bilera Arreiturreko liburutegian:

Elgoibarko gurasoentzat: urtarrilaren 29an, arratsaldeko 18:00etan

Mendaroko gurasoentzat: urtarrilaren 28an, arratsaldeko 18:00etan



Elgoibar BHI

www.elgoibarbhi.eus

Elgoibar BHI

Amagillorri 2

Tel.: 943 899 316

E-posta: 01343.iaa@neokunza.net



elgoibarko
herri eskola

Kalerua, 8

Tel.: 943 740 879

E-posta: 012777.aa@neokunza.net



EUSKALDUNA

HERRITARRA

HEZKUNTZA EREDU PROPIOA

ERALDATZAILLEA

Herritik sortuak eta herritarrentzat

Kooperatiba

Auzolana eta elkarlana

Euskal Curriculuma

Ikastolenelkartea

Kompetentzietan oinarritutakoa

Aitzindariza Pedagogikoa

Prestakuntza eta
aholkularitza

H+G+B

Ikasmaterialgintza
propioa



Bikaintasuna ikasleer
hobekuntzan

Euskal Kultura

Euskal Herritik mundura

Euskararen ardatzuriko
eleonizatasuna

Aurre-matrikulazioa:

urtarrilaren 27tik

otsailaren 7ra

Aurkezpen bilera, urtarrilaren 27an, 18:00etan

IKASTOLA
etorkizunerantz

elgoibar ikastola

hezkuntza

eraldatzen



elgoibar@elgoibarikastola.eus

943 74 44 41

www.elgoibarikastola.eus